



ARG. PIXABAY

Airearen kutsadurak eta trafikoaren zaratak hipertentsioa eragin dezakete, gizentasunak bezainbeste

Kutsadurak Europako biztanleengan epe luzera nola eragiten duen aztertzeko jaio zen ESCAPE proiektua, eta [emaitzak](#) argiak dira: airearen kutsadurak eta trafikoaren zaratak hipertentsioa eragin dezakete. Ikerketa Norvegia, Suedia, Danimarka, Espainia eta Alemaniako 41.000 herritarrekin egin da, eta beste datu bat ere utzi du: Alemaniak eta Espainiak dute aireko kutsadura handiena, eta Suediak eta Espainiak trafiko-zarata handiena.

Ikertzaileen arabera, airearen kutsadurak gehiegizko pisua edukitzearen pareko eragina du hipertentsioari dagokionez; 25-30 bitarteko Gorputz Masaren Indizea edukitzearen parekoa, hain zuzen ere (18,5-25 bitarteko indizea da pisu normala). Airean dauden hainbat tamainako partikulen kontzentrazioa neurtu dute, tartean 2,5 mikrakoak —biriketan sakonki barnerratzen direnak—, eta hauxe ondorioztatu dute: 2,5 mikrako partikulen kasuan, airean

metro kubikoko 5 mikrogramo gehitzen den bakoitzean % 20 handitzen da hipertentsioa izateko arriskua. Ezin dugu ahaztu, hipertentsioa dela arazo kardiobaskular eta heriotza askoren atzean da goen gaixotasuna.

Badirudi airearen kutsadura kimikoak eta zaratak bide desberdinetatik eragin dezaketela hipertentsioa: aire-kutsadurak bihotzaren eta odol-hodien inflamazioa eta estres oxidatiboa eragiten du (gorputzean pilatu diren molekula kaltegarrietatik),

eta nerbio-sistemaren funtzionamenduan desoreka ere ikusi dute. Trafikoaren zaratak, ordea, badirudi nerbio-sistemaren eta sistema hormonalaren funtzionamenduan eragin dezakeela.

Ikertzaileek adierazi dute Europako ohiko kutsadura-mailatik behera bizi diren pertsonengan ere ikusi dutela poluzioaren eragina. Horrek agerian utzi du egungo legediak ez gaituela aire-poluzioaren eragin kaltegarriez modu egokian babesten. ●

Garuna zahartu ahala tolestura aldatzen da

Ugaztunon ezaugarria da garunazal handia izatea, eta tolesturei esker lortzen da garunazal handi hori espazio txiki batean sartzea. Izatez, ugaztun guztion garunazalak arau unibertsal batzuren arabera tolestoen dira. [Ikerketa berri batek](#) argitu du, ordea, tolesturak adinarekin aldatzen direla.

Izan ere, zahartzearen lehenengo kanpo-adierazlea larruazala da, irmotasuna eta elastizitatea galtzen duelako. Baina garunazalari ere antzeko zerbait gertatzen zaio: zahartzen goazen heinean tentsioa murrizten da eta garunazalaren tolesturan igartzen. Garunazalaren morfologia osasunean eta gaixotasunean nola aldatzen den ere ikertu nahi izan dute, eta agerian geratu da alzheimer gaitza duten pazientei lehenago egin diela behera tentsioak. ●



Ikertzaileetako bat, giza garuna eskuetan duela. ARG.: NEWCASTLE UNIVERSITY.